


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,5 gehitu ziren 2014ko apirilean aurreko hilaren aldean

2013ko apirilaren aldean eraikuntza gastuak %0,5 gutxitu ziren

2014ko apirilean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,5 gehitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %-0,5 izan zen, EUSTATEN datuen arabera.



Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,6 garestitu dira.

Apirilean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %0,6ko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean baita ere.

Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran zeinu bera dugu. Etxegintzako lehengaien kostuak %1,1 jaitsi ziren, Obra zibilekoak %1,5.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artean urte artean (2014ko apirila 2013koaren aldean) prezio hazkunderik handienak: Zurgintza (%1,7) eta Ez-metalezko industria

(%0,6). Prezio jaitsierarik handienak azken hamabi hiletan: Metalurgia (%4,4), Petrolio-fintzea (%2,0), Energia elektrikoa eta gasa (%1,8).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK(p). 2014KO APIRILA

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	103,1	0,5	-0,5	0,4
ERAIKINAK	102,9	0,5	-0,5	0,3
OBRA ZIBILA	104,3	0,4	-0,8	0,4
LEHENGAI	102,5	0,6	-1,1	0,0
ERAIKINAK	102,2	0,6	-1,1	-0,1
OBRA ZIBILA	103,9	0,6	-1,5	0,0
LAN-ESKUA	105,4	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua